

3D MAPA

Praktika hau Otto Scharmer MITeko irakasleak bere "U Teoria"n txertatu zuen. 3D Mapa da tresna bat, zeina ideia, ekimen edo sistema batek zer nolako bilakaera izan dezakeen ulertzeko erabiltzen dugun.

Praktikaren indarra zure eskuekin lan egitean datza, zure egungo egoeran eta hark izan dezakeen bilakaeran soilik *pentsatu* beharrean. Zure eskuen ezagutzaz fidatzen bazara, aukera gutxiago izango duzu pentsatzeko eta irudikatzeko ohiko moduetara itzultzeko. Dimentsio eta ikuspegi ugari kontuan hartuz, aurrera egiteko modu berriak aurkitzeko aukera handiagoak izango dituzu.

Prestaketa

B5 bideoa ikusi.

Prozesua (sinplifikatuta)

- Materiala xumeak eta birziklatuak (post-it, txotxak, jostailu txikiak, sokatxoak, kolorezko fitxak,...) erabili egungo errealitatea irudikatzen duen eredu bat osatzeko, zeinak #NoDAPL kanpamentuaren elementuak eta haien arteko harremanak islatuko dituen.
- Mapako objektu bakoitzak elementu bat, ezaugarri bat (barnekoa edo kanpokoak) edo sistemaren alderdi bat adieraziko du. Utzi zure eskuei eredu/ mapa sortzen, gehiegi pentsatu gabe.
- Zure mapa sortu 10-15 minututan, banaka edo taldeka (txandak hartuz).

Mapari begira, galdera hauek egin

- Non daude botere-iturriak sistema honetan?
- Zure ustez, zein da egoera honetan eskatzen den etorkizuneko potentzialik handiena?
- Etorkizuneko potentzial handiena lurreratzeko, zer egin behar dut/dugu?

Uzta

Amaitzen duzunean, idatzi gogoeta labur bat ikasitakoari buruz.